

**2021EKO APIRILAREN 28KO KONTROLERAKO OSOKO
BATZARRAREN BATZAR-EGUNKARIA**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
CONTROL DE FECHA 28 DE ABRIL DE 2021**

ÍNDICE

	<u>Página</u>
- Se abre la Sesión.....	5
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del primer punto del orden del día: “Medidas para mejorar la situación de los bosques.”.	5
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola...	6
- Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural Sra. Antxustegi Ziarda	7
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola...	9
- Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural Sra. Antxustegi Ziarda	10
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del segundo punto del orden del día: “Transición y Gobierno Digital.”	11
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Urkaregi Etxepare	11
- Interviene la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales Sra. Etxanobe Landajuela.....	14
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Urkaregi Etxepare	18
- Interviene la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales Sra. Etxanobe Landajuela.....	19
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del tercer punto del orden del día: “La futura Ley de Aportaciones y la postura de la Diputación Foral de Bizkaia en la negociación de la misma.”	21
- Interviene la Apoderada del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia Sra. Fernández Angulo.....	21
- Interviene el Diputado General Sr. Rementeria Maiz.....	24
- Interviene la Apoderada del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia Sra. Fernández Angulo.....	27
- Interviene el Diputado General Sr. Rementeria Maiz.....	28
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del cuarto punto del orden del día: “El Plan Estratégico de transporte público de Bizkaia para el período 2018-2028.”	30
- Interviene el Apoderado del grupo EH Bildu Sr. Méndez Urigoitia	30
- Interviene el Diputado Foral de Transportes y Movilidad Sostenible Sr. Gómez Viar.....	33

- Interviene el Apoderado del grupo EH Bildu Sr. Méndez Urigoitia	35
- Interviene el Diputado Foral de Transportes y Movilidad Sostenible Sr. Gómez Viar.....	36
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del quinto punto del orden del día: “Las propuestas fiscales planteadas por el Fondo Monetario Internacional y las modificaciones fiscales en las que está trabajando la Diputación Foral de Bizkaia.”	37
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Urkaregi Etxepare	37
- Interviene el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas Sr. Iruarrizaga Artaraz.....	40
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Urkaregi Etxepare	42
- Interviene el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas Sr. Iruarrizaga Artaraz.....	44
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del sexto punto del orden del día: “Las incidencias que se están produciendo en la Campaña de la Renta y las medidas a poner en marcha para solventarlas.”.....	45
- Interviene la Apoderada del grupo Elkarrekin Bizkaia Sra. De Madariaga Martín.....	45
- Interviene el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas Sr. Iruarrizaga Artaraz.....	47
- Interviene la Apoderada del grupo Elkarrekin Bizkaia Sra. De Madariaga Martín.....	49
- Interviene el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas Sr. Iruarrizaga Artaraz.....	51
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del séptimo punto del orden del día: “Volumen de vertidos en Zaldibar.”	52
- Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Benito Ziluaga	53
- Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural Sra. Antxustegi Ziarda	53
- Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Benito Ziluaga	54
- Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural Sra. Antxustegi Ziarda	54
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del octavo punto del orden del día: “La Eurocopa.”	55
- Interviene la Apoderada del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia Sra. Fernández Angulo.....	55

- Interviene el Diputado General Sr. Rementeria Maiz.....	56
- Interviene la Apoderada del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia Sra. Fernández Angulo.....	56
- Interviene el Diputado General Sr. Rementeria Maiz.....	57
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del noveno punto del orden del día: “Las medidas de apoyo a los municipios afectados por el turismo interior.”.....	58
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola...	58
- Interviene la Diputada Foral de Promoción Económica Sra. Basurko Urkiri.....	59
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola...	59
- Interviene la Diputada Foral de Promoción Económica Sra. Basurko Urkiri.....	60
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del décimo punto del orden del día: “Las ayudas para sistemas de saneamiento y depuración de aguas.”.....	61
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola...	61
- Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural Sra. Antxustegi Ziarda	61
- Interviene la Apoderada del grupo EH Bildu Sra. Arriola Alzola...	62
- Interviene la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural Sra. Antxustegi Ziarda	62
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del undécimo punto del orden del día: “El parque empresarial de Burtzeña.”.....	63
- Interviene el Apoderado del grupo EH Bildu Sr. López Odriozola.	63
- Interviene el Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial Sr. Pradales Gil.....	64
- Interviene el Apoderado del grupo EH Bildu Sr. López Odriozola.	65
- Interviene el Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial Sr. Pradales Gil.....	65
- Lectura, por el Sr. SECRETARIO SEGUNDO, del duodécimo punto del orden del día: “Falta de coherencia de las acciones políticas a nivel global de la Diputación Foral de Bizkaia.”	66
- Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Escalante Mesón.....	66

- Interviene la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad Sra. Laespada Martínez..... 67
- Interviene el Apoderado del grupo Elkarrekin Bizkaia Sr. Escalante Mesón..... 68
- Interviene la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad Sra. Laespada Martínez..... 68
- Se levanta la Sesión..... 69

2021eko apirilaren 28ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 28 de abril de 2021 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Egun on, danori. Ahaldun Nagusi jauna, ahaldunak, batzarkide estimatuak, eta Batzar Nagusi hau streamingen bitartez jarraituko dozuen pertsona guztioi, egun on, eta eskerrik asko gurekin egotearren.

Gaur, apirilak 28, 42 urte bete dira Bizkaiko Batzar Nagusiak berrezarri ziranetik, eta, tamalez, gaurko eguna erakunde adierazpenagaz hasi egin behar dogu, Burkina Fasoko hilketak gaitzesteko.

Bozeramaileek erakunde adierazpena erdietsi dabe, eta hori da, hain zuzen be, irakurriko dodana.

Burkina Fason David Beriain kazetari nafarra eta Roberto Fraile kameralari bizkaitarra hil dituelako albiste tragikoaren aurrean, Bizkaiko Batzar Nagusiek doluminak emon gura deutsez bihotz-bihotzetik, euren familia, adiskide eta lankideei.

Manifestamos todo nuestro reconocimiento a quienes, como David y Roberto, trabajan diariamente en la defensa de los derechos humanos, y de un periodismo libre y valiente. Una profesión imprescindible en toda democracia, y que se hace aún más necesaria en aquellas zonas que viven en conflicto. Gogoan daukaguz era berean euren lanbidean jarduteagaitik jazarri, mehatxatu, eta hilten dituen komunikabideetako profesionalak.

Hau erakunde adierazpena, eta gai-zerrendeagaz hasteko, lehenengo puntua, Idazkari jauna:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001311](#))

Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Asunto: Medidas para mejorar la situación de los bosques.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0001311](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (52A)

Expediente: ([11/B/18/0002213](#))

1.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001311SE](#))

Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Gaia: Basoen egoera hobetzeko neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001311SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (52A)

Espediente: ([11/B/18/0002213](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Ekimena aurkeztu dauen batzarkidearen txanda da. Beraz, Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea, egun on danori.

2020ko Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-mapak erakusten deusku eukaliptoen hedapena zein dan Bizkaian, 20.000 hektarea. Kontuan hartu Baso-mapa dagoala 2018ko datuekin eginda. Horregaitik eskatzen dogu zein izan dan handitzea 2018tik gaur egunera.

Errealidade hori herriz herri ikusten dogu zein dan, eta ikusten dogu baita zer gertatzen dan pinudi gaixo gehienak eukaliptoakaz ordezkaten dirala. Hori be, buelta bat emoten badogu gure ingurutik, begi-bistan dagoan kontu bat da, eta ez da egia eukalipto diruz laguntzen ez danik. Zuzenean ez da laguntzen, baina zeharka bai. Zergaitik? Pinuaren bandaren ondorioz emoten diran laguntzak ez dagozalako supeditatuta bertan eukalipto ez landatzeraz, eta hori gertatzen ari da Bizkaian.

EHUk eta Aranzadik txosten bat aurkeztu eben Legebiltzarrean orain dala hilabete inguru, eta bertan azaltzen eben eukaliptoaren eragina zein dan ingurumenean, besteak beste, biodibertsitate galera izugarria, lurzoru emonkorra eta materia organikoaren galera, uholdeen areagotzea, lursailek ja ez daukielako euri urak erregulatzeko gaitasunik, sute arriskuaren handitzea, eta sute handiak bizi izan dira hemen eta urrunago be eukaliptoagaz: Australian, Portugalen 2017an 12 hildakorekin, eta hemen, Urduliz eta Muskizen, besteak beste.

Eukaliptoak mantenuari eta ur kantitate handiak ateraten dauz lurretik, eta 12-15 urteko tarte horretan eban egiten da, eta biomasa guztia kendu egiten da eta paper-fabriketara bideratzen da. Antxustegi andreak Batzorderatzean lehentasunak azaltzeko orduan eukaliptoari jagokonez esan eban, edo esan zenduan, asmoa zala 15 urtera luzatzea ebagite denbora, eta hori ja da bere tala sasoi normala. Beraz, kezkatuta gagoz gai honegaz, eta gure zalantza da ea inertziak Portugaleko eredura ete garamatzen, pinua, eukaliptoagaz ordezkatzuz, eta holan eukiko ete doguzan pinuak okupatu dabezan 70.000 hektareak.

Eta horregaitik aitatu gendun baita be serioagoa iruditzen jakula Gipuzkoako proposamena, 25 urtera luzatuz eukaliptoaren mozte adina. Ez da bakarrik ze espezie lantzen dan, baizik eta ze kudeaketa eredu egiten dan, eta egiten dan kudeaketa eredu gaur egunean da dana batera botatea, makineria astuna sartzea lursailetan, eta horrek egiten dauena da zapaldu lurra, materia organiko guztia desegin, higadura sortu, biodibertsitate galera. Hau ja esan eban 1996. urtean ikerketa baten baita be José Miguel Edesak. Ez jakon kasurik egin, hemen gagoz, orain dala gitxi hartu dau Arturo Elosegik, lehen esandako txostena aurkeztu dau Parlamentuan, ikusiko dogu kasu egiten jakon edo ez, ja jardun behar da, zergaitik? emergentzia klimatiko baten gagozalako eta biodibertsitate krisialdi baten, eta, ganera, banda marroiaren krisi baten. Beraz, jarduteko unea da, eta neurri handiak hartzekoa, ez paulatinoak, paulatinoak orain dala 20 urte, beharbada.

Klaro, kontua da honegaz guztiagaz Bizkaiko Foru Aldundiak urteetan pinua sustatu izan dau, eta eredu ez da ekonomikoki errentagarria izan, ez da izan efizientea, eta, horregaitik, dirulaguntza handiak egon dira pinura bideratuta, diru publiko asko injektatu da, balantze ekonomiko zehatz batek erakutsiko leuke ez zala berez errentagarria, baina tiritak jarri dira, berez hor mesedetuak enpresa handiak izan dira, enpresa handiei ondo etorri jake, egur kamioikada handiak erosten ebezelako nahiko merke, eta baso-jabeei kontuak justu-justu ateraten jakezan, 300 euro hektareako urteko pinuagaz, 500 euro hektareako urteko eukaliptoagaz. Badagoz beste egur batzuk askoz errentabilidade hobea emoten dabenak, ze pinuak eta eukaliptoak metro kubikoko 10-30 euro emoten dabez, eta beste egur batzuk, gerizondoak, intxaurrenduak eta abar 200 euro metro kubikoko edozein diametro eukita be.

Beraz, galderak dira zuzenduak pixka bat Bizkaiko Foru Aldundiak momentu honetan, eta hain inportantea dan momentu honetan, ba, zer egingo dauen, zer egingo

dauen pinua eukaliptoak ez ordezkatzeko. Eta, horregaitik, guretzat guztiz inportantea da alternatibak eskaintzea, alternatibak eskaintzea bai kontserbazinoko basoetarako eta bai produkzinoko basoetarako, naturatik gertuko basoetarako, eta kudeaketa eredu jakin batez, beste eredu batez. Eta baita Bizkaiko Foru Aldundiak zer egingo dauen bere mendietan. Erosketak egingo zirela aitatu zendun, Antxustegi andrea, jakin nahiko genuke non, ze sentsibilitategaz, nongo gunetan, izango diran ur hartuneen inguruan, erreken bazterrean, ze erispide markatu dan hor.

Eta, orokorrean, Bizkaiko ingurumena biodibertsitatea eta paisaia babesteko, zein asmo dagoan, zein asmo dagoan EHUko ikerketaren ebidentzien aurrean, itaunak galdera zehatz batzuk planteatzen dauz, irakurriko dodaz, eta galdera horreek dira: zeintzuk dira Bizkaiko Foru Aldundiak dituan datuak 2018tik aurrera eukaliptoen hedapenari jagokozanak, barne krisiaren bizkortzeagaz ordezkapen prozesua zein izan da, zeintzuk dira 2020. urteko datu errealak eukaliptoen azalera osoari jagokozanak? Zein da Bizkaiko Foru Aldundiaren plangintza Lurraldea antolatzeke, eta espazioa eukaliptoak modu eksklusiboan ez okupatzeko? Ze neurri hartuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak higadura handiak ekiditeke eta harro hidrologikoko eskalan ur hartuneak babesteko? Hartuko al ditu Bizkaiko Foru Aldundiak lurraren zaintza sustatzeko eta basoaren funtzio aniztasuna bermatzeko neurri ekonomikoak, politikoak eta plangintzazkoak? Zeintzuk? Hartuko al du Bizkaiko Foru Aldundiak mendian eskulanaren erabilera sustatzeko neurriekin makinariaren kaltetan, zeintzuk? Hau lotuta dago makineria astuna sartzen dan horregazko 40 tonako makinak, eta horreek milaka urteetan sortu dan materia organiko hori, lur ponpox hori egiten dabena da aplastatu, eta ez produktibo bihurtu. Dirulaguntzen bidez jardunbide egokiak sustatzeko asmorik badago? Zein neurritan? Txanda luzeko landaketak sustatzeko, zein neurri hartuko du Bizkaiko Foru Aldundiak?

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Arriola Alzola andrea, eta erantzuteke txandan, Aldundiaren ordezkaria, Antxustegi Ziarda andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Eskerrik asko. Egun on lehendakari andrea, batzarkideak, ahaldunak.

Joan den ostiralean, hilak 23, Batzar Nagusietan batzorde batean azaldu nuen zein izango diren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egunerokotasuna markatuko duten lehentasunak. Agerraldi horretan, interpelazio honen gaia aipatu nuen, eta, beraz, nire erantzunaren zati bat ezagutzen duzue.

Bizkaian eukaliptoaren benetako ezarpena ezagutzeko erreferentzia Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Inbentarioa da. Urtero ezartzen du baso-mapa, baso-espezieek hartzen duten azalarekin. Inbentario horren azken eguneratzea 2020koa da.

Baso Inbentario honetako datuak aztertuta, egiazta daiteke 2018an banda marroia sartu izanak joera aldatzea ekarri duela jabe pribatuek baso-masa produktiboan birpopulaketan, pinu radiata ez den beste konifero espezie batzuk aukeratzen baitituzte, hala nola itsas pinua, kriptomeria edo Douglas izeia, bai eta eukalipto ere.

Izan ere, eukalipto kopurua 2018an 35.514 hektarea izatetik 2020an 37.751 hektarea izatera igaro da.

Espezie horrekin zerikusia duten gaiak jorratzen jarraitu aurretik, azpimarratzekoa da txanda ertain eta luzeko hostozabalen azalerak eta baso misto atlantikoaren azalera neurri berean handitzen ari direla.

Baina itzul gaitzen eukaliptora. Hilaren 23an egin nuen agerraldian esan nuen eukaliptoa hedatzen ari zela, gogoratuko duzue. Eta gogoratuko duzue, halaber, azpimarratu nuela ez dagoela tresna juridikorik partikularrei espezie hori beren lurretan landatzea debekatzeko.

Horregatik, har ditzakegun neurriak beste norabide batean doaz. Azken urteotan, landaketa horiek lursail partikularretan ugaritu direnez, laguntza-planen bidez txanda desberdinetako espezieen birpopulaketak modulatu eta sustatu saiatu gara, espezie autoktonoen birpopulaketei eman beharreko dirulaguntza handituz, laguntza-plan horren azken deialdian inbertsioaren % 9ra arteko ehunekoetan.

Era berean, eta hilaren 23an iragarri nuen bezala, aurtengo deialdian ez dira diruz lagunduko edozein eukalipto bariatate landatuz gero sortzen diren mozketak sanitarioak. Babes-figurak dituzten natura-guneen barruko azaleretan, hala nola parke naturalak edo biotopo babestuak, eukaliptoa duten baso-berritzeak ere mugatuta daude. Eta titulartasun publikoko azaleretan, basoberritzea sustatzen da, txanda ertain eta luzeko espezieekin, mendi horien estazio-kalitatea egokituta.

Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin batera, indarrean dagoen Euskal Basogintza Plana berrikusten ari gara, egungo egoerak kontuan har daitezten, eta basoen iraunkortasunaren azterketa sakona egin dadin, jasangarritasunaren hiru zutabeak kontuan hartuta: ingurumena, ekonomia eta gizartea.

Gogorazi nahi dizuet, halaber, eukaliptoaren hedapena geldiarazteko neurri horien barruan, hilaren 23an iragarri nuen ekimena: espezie autoktonoekin birpopulatzeko mendiak erosteko plana.

Baso-estalkia mantentzea denez higaduraren aurka borrokatzeko eta arro hidrologikoetan uraren zikloa babesteko eta arautzeko berme nagusia, Aldundiak hartzen dituen neurri guztiak baso-estalkia mantentzeko eta ezartzeko dira, bai mendi publikoetan bai pribatuetan. Lehenengoetan, kudeaketa zuzenean oinarrituta, eta bigarrenetan, baso-kudeaketa jasangarria ezartzeko sustapenaren eta aholkularitzaren bidez.

Baso-masei eusteko ahalegin horrek bi ondorio positibo izan ditu:

- Alde batetik, basotutako azaleraren gehikuntza, lurraldearen azalera osoaren % 60raino gutxi gorabehera, Europako batez bestekoa baino ratio askoz handiagoa.
- Bestalde, kudeaketa jasangarriaren ziurtagiria duen azaleraren hazkundera. 2020. urtearen amaieran, 2.164 plan izan dira baso-ziurtaginaren barruan, eta 59.521 hektareako azalera ziurtatua; hau da, baso-azalera produktiboaren % 60, gutxi gorabehera.

Azken horri dagokionez, baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiriei dagokienez, azpimarratu nahi nuke, halaber, 2004az geroztik, eta iraunkortasun-irizpideen eta adierazleen Europako jarraibideen ildotik, Aldundiak Baso Kudeaketa Jasangarriako Plan Teknikoak idatzi eta onartzeko eta horiek Baso Ziurtagirian sartzeko erregulazioa ezarri zuela. Eta, gainera, jardunbide egoki horien aplikazioa bermatzeko, Aldundiak, 2013az geroztik, Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan bat eduki beharra ezarri zuen, oro har, Laguntzen Baso Planeko dirulaguntzak jasotzeko.

Bestalde, eta jardunbide egoki horiek sustatzeko, aurtengo laguntzetan, basogintzako, ingurumeneko eta klimako zerbitzuak sartuko dira dirulaguntzen lerroen artean, eta horrek esan nahi du diruz lagunduko dugula baso-kudeaketa jasangarriena egiten duten metodoak aplikatzea.

Makineriaren erabilerari dagokionez, eskulana sustatzeko zeharkako neurri gisa daude makineria astunaren erabilera maldaren arabera mugatzeko neurri guztiak. Gainera, laguntzak emateko oinarri gisa erabiltzen diren moduluak prestatzean, eskuz egiten diren lanen balorazioak makinekin egindakoak baino handiagoak dira.

Eta baso-makineriaren erabileran jardunbide egokiak sustatzeko birpopulaketetarako lurra prestatzean, sektoreko enprekin batera lan egiten ari da, eta horiek biltzen dituen erakundearekin, Baskegurrekin, koordinatuta. Ildo horretan, urteko bigarren hiruhileko honetan aurrez aurreko bilerak egin dira Bizkaian lan egiten duten enpresa ia guztiekin, eta argi utzi da enpresa horiek nahitaez bete behar dituzten baso-kudeaketa jasangarriko praktikak lurzoruaren kalitatea kontserbatzeko eta higaduraren aurka borrokatzeko baso-lanetan.

Azkenik, gogorarazi nahi dut Bizkaiko Foru Aldundiak 2018az geroztik parte hartzen duela SINCERE izeneko proiektu europarrean, bazkide gisa. Proiektu horren helburua basoko zerbitzu ekosistemikoak kuantifikatzea, ebaluatzea eta hornitzea da, bai eta mekanismo berritzaileak ezartzea ere, zerbitzu ekosistemikoen hornidura eta ordainketa bermatzeko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Antxustegi Ziarda andrea. Eta erantzuteko txandan, Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Eskerrik asko. Eskerrik asko, Antxustegi andrea.

Ur hartuneak babestu ez direlako, ur hartuneak urteetan zehar Bizkaian ez daukagu edateko ur nahikorik, eta horregatik ekarri behar dugu Arabatik eta Burgostik; beraz, hori egingo bada orain, eta ur hartune guztietan, ondo etorria izango da.

Beste alde batetik, makineria astuna mugatzeko arauak badaude, baina ez dira betetzen, eta horregatik daukagu errekar marroi. Zergatik? Ba, materia organiko guztia, lur fertil guztiak erreketan amaitzen dauelako. Niri iruditzen jat ez dala behar besteko ausarta. Bai egiten dira aurrerapauso batzuk, baina ez dira nahikoak, gauzak egin daitezke. Eredu bat proposatu dau urteetan Aldundiak, pinuaren sustapena, eta hori kolapso batera heldu da. Ez zarie kolapsoaren erantzule egingo? Kolapsoaren erantzule egin behar da, eta alternatibak eskaini. Debate hau kalean dago, erantzun egin behar da, proposamen batzuk. Gipuzkoak egin dauena, 25 urtera luzatu mozteko epea, jentea ez daiten animatu eukalpto gehiago landatzera, fiskalitatea, peaje bat jarri eukalptoari, ez handia, pinuaren errentabilidade bera neurtzeko peajea. Esan dogu pinuagaz 5 euro hektarea eta urteko lortzen zirala. Parkatu, pinuagaz 300, eukalptoagaz 500. Jarri 150 euroko peaje bat eukalptoari hektarea eta urteko errentagarritasuna limatzeko, besterik ez, kalteak konpentsatzeko. Alternatibak eskaini beste era bateko basogintzari.

Moduluak errebisatu behar dira. Zergatik? Kontserbazinorako basoak landatzeko orduan edo produzinarako basoak landatzeko moduan espezie dibertsifikatuakaz moduluetakoa dirulaguntza dalako 1.800 euro hektareako eta kostea dalako 400 euro hektareako. Zergatik joan behar dau ausartenak edo trantsizioa egitera animatzen danak bere bizkar? Animatu horreek, sustatu horreek.

Eta, gero, aitatu dozu baita be Aldundiko lurretan zer egingo dan. Lur publikoetan 2.700 hektarea dagoz eukalipto, zer egingo da horreekaz? Zer egingo da hektarea horreekaz? Zerbait egin beharko da. Ea zer egiten dan. Zergaitik ez dira batzuk bideratzen, patrimoniaia adibidez, kontserbaziorako, eta MUP diran horreek, adibidez % 40 kontserbaziorako eta % 60 naturatik gertuko basoetarako produkzioetarako? Zergaitik? Esperientziak sortzeko, pribatuek ikusteko, eta ikusteko eta konstatatzeko badagozala beste egiteko modu batzuk.

Oraintxe da momentua alternatibak eskaintzeko. Garapen jasangarriaren aldetik guztiz ados planteatu dozunagaz. Baina garapen jasangarria, ikuspegi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, danak barne biltzen dauz, eta hori da Bizkaiko Foru Aldundiari falta jakona. Merkatuaren desbideraketak zuzendu egin behar dira, eta oraintxe da momentua. Gure arazoa askoz larriagoa da Gipuzkoakoa baino gai honekiko, eta horrek eskatzen dau greenwashing operazio bat egin beharrean, hau da, zerbait egiten danareko itxura emon eta ezer ez egin zerbait gehiago egiteko beharra dakar, eta, bestela, hartutako neurriak, nahiz eta aurrerapausoak izan, eta horretan insistitzen dot, ez dira behar besteko ausartak. Eta egin daiteke irakurketa bat, esate baterako, Bizkaiko Foru Aldundiak eroaten gaituala eredu forestal batera, zeinetatik Portugal eta Galiziak, esate baterako, ihes egiten daben. Bizi izan dabenagaitik eukaliptoagaz, ez beste ezergaitik.

Beraz, 132.000 hektarea dagoz forestalean Bizkaian, 132.000 hektarea, eta zerbait egin beharra dago, oraintxe da unea. Zerbait irakurri neban prentsan, ez da orain aitatu, baina harizti batzuk-edo sustatzeko aitutzen zan, oker ez banago 60 hektarea. 60 hektarea 132.000 hektareagaz konparatuz, ez da proportzionala. Gitxienez izan beharko lirateke 40.000 hektarea harizti. Ze esaten zana zan “devolverle el lugar al roble” konkretuki, “devolverle el lugar al roble” 60 edo 600 hektareagaz? Hori askoz gehiago da. Hemen armarrarian be haritza daukagu, eta haritza pasau dogu arbola eukitetik orain hosto bat daukagu, eta ez dakit, sinbolismoak be zerbait eragiten dau. Benetan, ongi etorriak neurriak, aurrerapausoak dira, baina oso txikerrak gagozan momentuagaitik. Banda marroiaren krisiagaitik, eta emergentzia klimatiko baten gagozalako. Eta emergentzia ez da nire irudipena, horrek suposatzen dau neurri azkarrak eta ausartak hartzea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Arriola Alzola andrea. Eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Antxustegi Ziarda andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Eskerrik asko.

Berriz aipatzen duzu Gipuzkoako kasua. Nik agerraldian esan nizun azkenean egoera desberdinak direla, errealitate desberdinak direla, eta Bizkaiko Foru Aldundia pausoak ematen dabil eukaliptoaren hedapena mugatzeko. Eta hartzen jarraituko dugu, eta tokiko espezieen landaketa sustatuko dugu.

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso hori hartu du. Adibidez, Bizkaia Egiten estrategian ere Bizkaiko baso-ondare bilduma sortzeko ekimena barneratzen da. Eta horretan gabilza. Eukaliptoaren landaketa mugatzeko, esan dudan moduan, agerraldian ekimenak zeintzuk izango diren esan nuen, hamarkada bat baino gehiagoz izan duen posizionamenduaren ondorio logikoa da.

Orduan, eukaliptoaren landaketak diruz ez laguntzea erabaki zen. Eta orain, teknikariek egindako lan baten eta ildo horretan egin zitezkeen jardueren balorazioaren ondorioz datoz, eta hau hilabeteetako lana izan da. Izan ere, ezin dugu ahaztu gaur egun ez dagoela tresna juridikorik eukalipto plantatzen duen partikular bat debekatzeko.

Dakizuenez, epaitegietan eukalipto espezie exotiko inbaditzaileen katalogoan sartzeko demanda bideratu zen. Horrek debekurako tresna izatea ahalbideratuko zuen. Baina epaileak uko egin dio ezartze horri, eta, beraz, berriz diot, ez daukagu gure esku eukalipto daukaten landaketa horiek debekatzeko modurik. Nolanahi ere, gai hori jorratzean ezinbestekoa da ikuspegi orokor batetik egitea, eta horrelako neurri bat hartzeak ingurumenaren ikuspegitik izango lukeen eragina aztertzea, bai eta sektore bateko jarduera ekonomikoari eta enpleguari eustearen ikuspegitik ere. Basogintzak Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren % 1,5 hartzen baitu. Eta 18.000 pertsonari ematen baitie lana. Horri dagokionez, funtsezkoa da, halaber, basoen kontserbazioaren ikuspegitik baso-jarduera uzteak izango lituzkeen ondorio negatiboak kontuan hartzea. Izan ere, baso-jarduera horrek berekin dakar basozaintzako lanak egitea, inausketak, entresakak, belar sastrakak kentzea, mendietan eragin positiboa dutenak eta sute batean suaren aurrerapena geldiarazten, eta, beraz, suaren ondorioak gutxitzen laguntzen dutenak.

Gure aldetik, nire agerraldian iragarri nituen neurriez gain, erakunde eskudunekin batera analisi eta plangintza bateratuetan aurrera egiten jarraitzeko asmoan jarraitzen dugu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzari jakinarazi diogu gai horri buruzko hausnarketa aktibatu behar dela, eta horrek isla izan dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko basogintza planean.

Plan hori era guztietako jarduerak planifikatzeko eta integratzeko tresna gisa sortu da. Araugintza, erregelamendua eta betearazpena. Eta, beraz, tresna egokitzat jotzen da eukaliptoaren presentzia Bizkaian ez ezik Euskal Autonomia Erkidego osoan ere arautzeko. Izan ere, haren ebazpenak Eusko Jaurlaritzari eta hiru Foru Aldundiei dagozkie, lurralde historikoen legean ezarritako eskumen sistemaren arabera. Plan hori 2030era arte egongo da indarrean, baina eguneratu egin daiteke, Bizkaiko Foru Aldundiak proposatzen duen bezala, egungo egoera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoari erantzuteko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Antxustegi Ziarda andrea. Eta gai-zerrendako bigarren puntura pasauko gara.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001312](#))

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: Transición y Gobierno Digital.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0001312](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (53A)

Expediente: ([11/B/18/0002214](#))

2.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001312SE](#))

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: Trantsizio eta Gobernu Digitala

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001312SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (53A)

Espediente: ([11/B/18/0002214](#))

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea, eta egun on guztioi.

2021eko aurrekontuen aurkezpenean, Unai Rementeria Maiz ahaldun nagusiak 4 trantsizio azpimarratu zituen, eta horietako bat trantsizio digitala zen. Eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren aurrekontuak azaltzean, orduko diputatu andreak, Ibone Bengoetxea Otaoleak, aurrekontuen helburu nagusia Gobernu digital barneratzailea eratzea zela adierazi zuen. Oraindik ez dugu aukera izan Diputatu berriaren asmoak ezagutzeko, baina ziur gaude helburu hori mantenduko duela.

Sin duda, llevar adelante la transición digital es un reto que deben abordar todas las instituciones, pero que nos implica también a todas y todos nosotros. Pero quiero subrayar que se trata de un reto, de un cambio necesario, sí, pero que, como todo cambio, tiene sus oportunidades, y sus riesgos. Y esto nos lleva a reflexionar sobre cómo debemos llevar a cabo esa transición. Y ese es el objetivo de la interpelación que presenta EH Bildu.

Hain zuzen, zehaztu behar dugu digitalizazio prozesua nola eramango den, nork zuzenduko duen, eta nondik abiatuko den.

Hain zuzen, abiapuntua egungo egoera izan behar delako.

- Alde batetik, erakundea bera, eta beren langileena, beraien egoeratik abiatu behar baita aldaketa.

Eta, bestetik, herritarrak eta beraien artean dagoen arrakala digitala eta zeintzuk neurri hartuko diren arrakala horren kontra.

Gobernu digital barneratzailea oso termino polita da, guztiok ados egongo gara helburu horrekin. Baina helburu hori lortzeko eramango den prozesuaren ezaugarriak oso ondo zehaztu behar ditugu.

Si se quiere desarrollar un Gobierno Digital inclusivo, y quiero subrayar esa característica de inclusivo, tenemos que abordar dos grandes ámbitos en ese proceso: hacia dentro de la Institución, con sus trabajadoras y trabajadores, y también con la propia organización y estructura de la Diputación; y hacia fuera, hacia la ciudadanía.

Barrura begira, aldaketa handiak suposatuko ditu trantsizio digitalak. Aldundiaren egituran bertan, eta egitura sostengatzen duten pertsonengan, langileengan. Langileek formakuntza beharko dute, administrazio publikoko langileek gaitasun digitalak izateko formakuntza eta trebakuntza beharko dituzte. Eta hori ezin da egin egun batetik bestera.

Diputatu ohi andreak azaldu zuen barne-azpiegitura teknologikoak garatu behar direla “zerbitzua emateko eta bulegoa irekita egoteko 24 ordutan, asteko 7 egunetan, urteko 365 egunetan”.

Podemos compartir la idea de que, a través de la digitalización, va a ser posible dar servicio a la ciudadanía durante las 24 horas, los 7 días de la semana, los 365 días del año. Pero eso no sólo exige infraestructura tecnológica, exige contratar más personal. Quien hoy tiene una jornada de 8 horas no puede trabajar 24 horas, por mucho que sea desde su casa. Ese es uno de los problemas del teletrabajo, la regulación de la jornada laboral en el trabajo.

Necesidad de nuevas contrataciones y también modificación de las condiciones laborales, al menos de la jornada de trabajo seguramente. Y todo eso no se puede hacer por Decreto.

Horregatik, gure Itaunean galdetzen diogu Elisabete Etxanobe Landajuela diputatu andreari:

Nola planteatzen ditu Bizkaiko Foru Aldundiak antolaketan eman beharreko aldaketak gauzatzeko urratsak, eta zein izango da bide horretan negoziazio sindikalak izango duen lekua?

Kanpora begira, herritarrekiko harremanetarako kanal ezberdinak bultzatzea planteatzen da. Esaten da aurrez aurrekoa mantenduko dela, baina gehienbat telefonoaren bidez eta Bizkaia APP berriaz hitz egiten da.

Aurreko legegintzaldian Bizkaia Gertu programa abiatu zen, eta eskualdeko bulegoak ireki ziren Durangon, Bermeon eta Gernikan. Legegintzaldi honetan, asmoa zegoen gutxienez Balmasedan beste bulego bat irekitzeko. Baina asmoan geratu omen da.

Eta horri lotuta planteatzen diogu Diputatu andreari:

Digitalizazio prozesu honekin batera, Bizkaia Gertu programarekin aurrera jarraitzea planteatzen da, eskualdeko bulego gehiago irekiz?

Hemos visto lo que está pasando con la campaña de renta. Más allá de los errores, no se garantiza la atención presencial, y eso está creando inseguridad y nerviosismo en muchas de las personas que no pueden acceder a sus datos de la declaración.

Y la atención telefónica, además de las dificultades para acceder a ella, no es suficiente.

Digitalizazio prozesua garatu arren, ezinbestekoa da aurrez aurreko arreta mantentzea, ezin dugulako ahaztu gure gizartean dagoen arrakala digitala.

Eta horrekin batera, nahi badugu herritar guztiak digitalizazio prozesuan inplikatzeko, arrakala digitalaren aurkako neurriak hartu beharko dira. Bestela, ezinezkoa izango da Gobernu digital barneratzailea, benetakoa, sortzea.

Herritarrek gaitasuna izan behar dute digitalizazio prozesuen partaideak izateko. Aldundia banda zabala bizkaitar guztiengana ailegatzeko inbertsioa egiten ari da, baina hori ez da nahikoa.

No es lo mismo tener la posibilidad de acceder a internet que tener capacidad económica y de conocimiento para acceder y utilizar internet.

Y en este sentido, le preguntamos a la señora diputada: ¿cuáles son las medidas que va a adoptar la Diputación de Bizkaia, en colaboración con otras instituciones vascas, para impulsar el empoderamiento tecnológico de todas las personas de este Herrialde?

Desde la Diputación, se planteaba un tercer ámbito de desarrollo del Gobierno Digital que creemos que es importante también: la creación de un ecosistema de tecnologías gubernamentales, el llamado GOVTECH, a través de startups, y se hablaba también de crear una unidad de negocio.

Nos parece una cuestión que requiere una reflexión previa sobre los objetivos de ese GOVTECH, y sobre cómo se quiere desarrollar. Y lo digo, porque, en este ámbito de unidad de negocio, en torno a los datos del Gobierno Foral, no podemos ignorar los riesgos existentes y hay que tomar medidas para evitarlos.

Riesgos que van más allá de la protección de datos.

Zalantza barik, Big Data eta Adimen Artifizialeko teknikak tresna lagungarriak izan daitezke erabakiak hartzeko. Nire zientzia-ezagutzatik esaten dizuet. Izan daitezke bai, baina, horretarako, baldintza batzuk bete behar dira.

Datuak aztertzeke lehen urratsa da datu onak izatea, hau da, datuak orraztu eta garbitu behar dira, akats guztiak zuzenduz. Eta lan hori Aldundiko langileek egin behar dute, hori ezin du egin kanpoko startup batek.

Datos correctos, primer paso para poder analizarlos. Y, de momento, visto lo visto con la campaña de la renta, ya lo siento, pero es el mejor ejemplo para el proceso de digitalización, de cómo no se debe hacer. Parece que los datos de la Diputación no están depurados, sigue habiendo personas fallecidas, los datos no son correctos...

Eta, horretaz gain, datuek aztertu nahi dugun errealitatea islatu behar dute. Hau da, ezin dira datu gehienak gizonezkoenak izan, edo gehienak gazteak.... Datuak ezin dira alboratuak izan. Kontuan hartu behar dute gizartearen aniztasuna.

Literatura handia dago horren inguruan. Nik hona ekarri nahi dut liburu bat, Data Feminism, bi emakume zientzialarik idatzita: Catherine D'Ignazio, Massachusettseko Teknologia Institutuko irakaslea eta Lauren Klein, Emory Unibertsitatekoa.

En el libro Feminismo de Datos, estas dos científicas plantean que es fundamental reconocer los sesgos de género, y también los de racismo, clasismo y discriminación de minorías de los algoritmos usados masivamente en las aplicaciones de inteligencia artificial y en Big data. Y entender estos sesgos técnicamente para introducir medidas que los contrarresten.

Eta, azkenik, algoritmoen bidez lorturiko emaitzak interpretatu behar dira. Eta horrek diziplina anitzeko taldea egotea eskatzen du. Eta, bertan, datuak ondo ezagutzen dituztenek, Aldundiaren partaideek edota langileek hartu behar dute parte. Beraz, GOVTECH delako hori negozio eta ekonomiaren bidetik soilik garatzea oso arriskutsua da.

Horrek ez du esan nahi Big data eta Adimen artifizialeko teknikak ez direla erabili behar. Kontua da noren eskuetan uzten den prozesu hori. Horregatik, gure itaunaren azken galdera da:

Zergatik ez da planteatzen gobernuko teknologien ekosistema hori?

- Alde batetik, Aldundiko langileen formakuntza bultzatuz, eta baita lanpostu espezifiko berriak sortuz ere.

- Eta, bestetik, unibertsitateekin eta ikerketa-zentro publikoekin elkarlanean egitea?

Hori da gure itauna, eta zuen erantzunaren zain geratzen gara. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Urkaregi Etxepare andrea, eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Etxanobe Landajuela andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Ahaldun Nagusi, batzarkideak, egun on guztoi.

La estrategia digital es un eje de nuestro programa de Gobierno. Es por ello un compromiso con nuestra ciudadanía. Uno de los grandes retos de la Diputación para los dos próximos años será el de acelerar la transición a un Gobierno Digital inclusivo para Bizkaia.

La crisis sanitaria a la que nos hemos tenido que enfrentar este último año, y todavía seguimos, ha permitido poner en práctica lo hecho hasta ahora, y nos ha obligado al mismo tiempo a avanzar en muy muy poco tiempo.

La política de esta Diputación en relación con la estrategia digital se mantiene, y se va a desarrollar en tres ámbitos. Hacia fuera de la organización. Con el objetivo de garantizar servicios de mayor valor añadido que respondan a las necesidades y expectativas presentes y futuras de nuestros ciudadanos, ciudadanas, empresas, ayuntamientos, garantizando la experiencia personalizada en su relación con la Diputación Foral de Bizkaia.

También una transición digital hacia dentro de la propia organización, cuyas personas requerirán nuevas aptitudes y conocimientos enfocados a un entorno digital, lo que exigirá adecuar los perfiles profesionales.

Y, en tercer lugar, una transición digital que busca impulsar el emprendimiento y la innovación en el Territorio.

En concreto, creemos que la Diputación puede ser tractora de un ecosistema emprendedor en el ámbito GOVTECH, una plataforma de innovación abierta donde corporaciones, startups, centros tecnológicos y universidades puedan co-crear con un doble enfoque.

Por un lado, contribuir a mejorar los servicios proporcionados desde la Diputación con la incorporación de soluciones innovadoras y con base tecnológica, y, por otro, en segundo lugar, contribuir al crecimiento del propio sector GOVTECH en este Territorio de Bizkaia.

En lo que supone dicho Gobierno Digital que tenemos como objetivo en cuanto a la organización del ámbito interno, las implicaciones, como se pueden imaginar, son numerosas. En primer lugar, el Gobierno Digital requiere avanzar en que la propia gestión administrativa sea digital. y ya lo es en gran medida en la Diputación. Se llevan muchísimos años de trabajo invertidos en digitalizar procedimientos, pero también exige avanzar en nuevas formas de hacer más ágiles e innovadoras y eficientes. Y obviamente, y, por supuesto, afecta de un modo muy importante a las personas que conforman la organización.

Y aquí nace el plan de personas. Plan incluido en el proyecto Bizkaia Egiten, que tiene como objetivo definir los nuevos perfiles profesionales que la Diputación Foral de Bizkaia precisará en los próximos años.

Dentro de los hitos que teníamos previstos y del trastoque que ha supuesto el periodo de pandemia en esta gestión de personal, se han realizado las siguientes actuaciones:

Hemos realizado un análisis preliminar de necesidades en el que se basará el plan sobre nuevos perfiles profesionales, que permitirá disponer de nivel de tecnificación, preciso. También se ha realizado un análisis de las habilidades digitales necesarias para cada perfil profesional. Aprovechamos la experiencia de los planes de teletrabajo anuales, así como la derivada de la fórmula de régimen de trabajo mixto, trabajo, teletrabajo presencial establecido con motivo de la situación sanitaria actual para el personal que no presta servicios en unidades de emergencia, o en aquellas que están definidas como esenciales o presenciales, con el objetivo de una nueva propuesta de regulación de una modalidad de prestación de servicio con jornadas no presenciales a desarrollar mediante teletrabajo.

Seguiremos trabajando en lo que queda de legislatura para seguir preparando la organización para el futuro.

La negociación colectiva, como no podía ser de otro modo, se insertará en cada fase del proyecto del plan de personas cuando éste así lo exija.

Como he señalado, un Gobierno Digital supone nuevas formas de hacer lo que requiere de formación, formar al personal de la administración pública en competencias digitales. Una parte de este trabajo se está llevando a cabo, y ya es parte del plan de formación de nuevas habilidades puesto en marcha desde el área de función pública que ya hemos iniciado con la formación al personal existente, y la exigencia de ciertas habilidades en el ingreso, y que deberá continuar para lograr la recualificación hacia las nuevas necesidades.

Quiero destacar solo algunas de las iniciativas que se han llevado a cabo dentro de dicho plan.

El equipo de función pública se ha formado en detección del talento interno.

Se ha impartido en las jefaturas de servicio y en las direcciones generales el curso a transformaciones en el empleo público en la próxima década, afectación a la política de la Diputación Foral de Bizkaia, y para este año también está previsto el curso “culturas organizativas que transforman”.

De manera general se han impartido, entre otros, los cursos de “herramientas estratégicas de trabajo en nube, interoperabilidad, ofimática online” con un total de 2474 asistencias.

Se ha diseñado un pack formativo para personal administrativo que se incorpora con todas las nuevas herramientas corporativas, como puede ser portafirmas, aplicación, notificaciones, artes, bandeja de tareas, registro y gestor de entradas, etc.

También está generalizada e implementada la exigencia de conocimientos TIC a quienes accedan a la Diputación Foral de Bizkaia y se van añadiendo progresivamente temas relacionados con la digitalización de las administraciones públicas en los temarios de oposiciones.

Del mismo modo, las bases de las diferentes convocatorias tienen su fase de negociación en la mesa de negociación de la Diputación.

El nuevo Plan de Formación para este año 2021 incluye formación para el personal funcionario en temas como Open data, microinformática, portafirmas, registro apoderamientos y sede electrónica, formación transversal en transformación digital, que contiene cursos basados en el dato, así como cualquier otra formación específica que sean necesarias en función del puesto de trabajo correspondiente, que ha sido también objeto de negociación y aprobación en la mesa de negociación de la Diputación.

Querría destacar entre todo este aspecto de formación, la formación sobre el dato, que está previsto impartir en menos de 6 meses a todas las personas de la plantilla que trabajen con ordenador, además de posteriormente un nivel de profundización mayor a nivel de jefaturas.

También querría destacar la iniciativa, vigilan 365 llevada a cabo durante el último año como proyecto de transformación cultural a través de las herramientas colaborativas

digitales. El proyecto busca transformar la manera tradicional de trabajar adquiriendo una nueva cultura de trabajo digital, dotando a las personas de nuevos hábitos y comportamientos digitales.

Se ha llevado a cabo una fase de capacitación a través de webinars y talleres por los que durante el año 2020 han pasado 900 personas. Creo que la apuesta de la Diputación por formar y capacitar a su personal queda demostrado con estos ejemplos.

Como resultado del trabajo, querría añadir una serie de datos también.

Solamente en 2020 se han llevado a cabo 88.650 firmas a través del portafirmas, con un incremento de este servicio del 275%.

2,4 millones de firmas CSV también el año 2020. Al día gestionamos 2.500 conexiones.

Hemos pasado de 52 a 1.600 personas de media haciendo uso de la herramienta Office 365, con un incremento también muy relevante en llamadas y reuniones a través de esta herramienta.

850.000 autenticaciones al mes en plataformas online, 28.300 al día, 70.000 intercambios mes en el marco de la interoperabilidad.

En lo que se refiere a la orientación al exterior, a la ciudadanía, lo primero querría matizar un aspecto de su pregunta. La Diputación apuesta por un sistema de atención multicanal como eje de la estrategia digital inclusiva, y no solo la de la vía telefónica y la APP Bizkaia, como ha señalado en su pregunta, entiendo que, queriendo referirse a las vías telefónicas y web.

Se ofrece una atención multicanal, que da la opción a la ciudadanía de elegir libremente el canal de acceso a los servicios y contenidos ofrecidos por la organización digital telefónico o presencial, y los 3 canales, los 3, son igual de importantes, seguiremos desarrollando los 3 e iremos, cómo no, evolucionando y adaptando al servicio a la realidad del momento.

Respondiendo en concreto a su pregunta, la red de oficinas de atención ciudadana integral comarcales abiertas en los municipios de Durango, Bermeo y Gernika, se completará con la próxima apertura de la oficina de Balmaseda, que dará servicio a vizcaínos y vizcaínas de la comarca de Enkarterri.

Y continuaremos con este despliegue de dichas oficinas en el Territorio, garantizando de este modo la atención presencial a quien lo precise. Estamos estudiando ya nuevas posibles ubicaciones para ir completando ese mapa.

¿Eso es compatible, una cosa con la otra?, bueno, pues las instituciones vascas creíamos que era así, que era compatible perfectamente. Ahora bien, la UEFA, unilateralmente, repito, unilateralmente, ha considerado que no. Pero sigo con el compromiso, este Diputado General también tiene un compromiso por cumplir, la palabra, la palabra dada. Y con la Eurocopa puedo decirle que nosotros hemos cumplido lo firmado, hemos cumplido con nuestra palabra, seguíamos trabajando hasta el último momento para albergar la competición, dentro de las posibilidades que la propia pandemia nos posibilitaba. Y seguíamos, como no, siempre con los criterios y bajo los criterios sanitarios que los expertos nos estaban trasladando. Le recuerdo, por tanto, insisto una vez más, que ha sido la UEFA quien ha faltado a la palabra, quien ha faltado a lo firmado. Por tanto, compromiso sí, total, primero con la salud de las personas, segundo, con cumplir la palabra, cumplir los contratos, cumplir la palabra dada, y tercero absolutamente comprometidos lógicamente como he dicho al inicio con una Bizkaia mejor, dejar siempre una Bizkaia mejor.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Ahaldun Nagusi jauna. Erantzuteko txandan, Fernández Angulo andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Gracias, señora presidenta.

Ya ha dicho que este siempre ha sido el compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia, y usted como Diputado General. El de usted, todavía, no lo voy a poner en duda, pero el de la Diputación Foral de Bizkaia no lo tengo tan claro, porque en el año 2014, quien le precedió en el cargo dijo que le gustaría que se pudiesen celebrar los partidos de la Eurocopa en San Mamés, pero solo si la selección española actuaba como visitante. Es verdad que fue un criterio distinto, será por aquello de las dos almas que tenía su homólogo en el Ayuntamiento de Bilbao en aquellos años, que sin embargo dijo sería maravilloso que pudiera albergar San Mamés, Bilbao, la Eurocopa. Pero bueno, en ese momento y también en este sigue existiendo esa Bizkaia tranquila, más apegada a la realidad, que estaba deseando y está deseando disfrutar de esa cita futbolística, e insisto, y los hosteleros estaban preparándose y trabajando para

demostrar una vez más que Bizkaia, que Bilbao, es probablemente el sitio del mundo en el que uno mejor puede comer y disfrutar de una gastronomía como la que tenemos.

¿Pero, qué ha pasado durante este tiempo?, pues que el Gobierno Vasco ha decidido arruinar este sueño de los vizcaínos, y ha pasado como con el bono social de los peajes, la pandemia ha venido muy bien, ha encajado como un guante. Han llegado no unas condiciones en las que se prima lo sanitario, si eso no está en duda, claro que lo sanitario es importante, lo que se han planteado son unas condiciones que son inalcanzables, que no se pueden cumplir. Oiga, que no nos han puesto unos requisitos distintos por ser vizcaínos o por ser vascos, son iguales para todos, entre esas condiciones se han planteado por ejemplo la exigencia de tener un 60% de la población vacunada, ¡vaya cuajo, por parte del Gobierno Vasco! O sea, ahora hemos mejorado un poco, hemos estado los últimos de la cola, y un 2% de las camas de UCI ocupadas, bueno, yo a eso le llamo, es verdad que, de forma muy educada, pero es como decirle a la UEFA, oye, mire, un no pero cortés, eso es lo que hemos hecho.

Y después llegaba el desenlace, al órdago voy del Gobierno Vasco, el órdago quiero de la UEFA, y tras la tormenta, la resaca, y la mejor defensa es un buen ataque, y la sobreactuación para que no parezca lo que verdaderamente ha resultado: demandas para ser resarcidos por la cancelación del evento, hemos acusado, por si fuera poco, a la UEFA y a la Federación Española de Fútbol, digo yo que pensando en acuerdos futuros, de tratar de imponer la presencia de público en los partidos, como si fuera algo sólo para los vizcaínos.

Pero si es que esto ha sido para todos, se ha asegurado que a la Federación de Fútbol no le gusta Bilbao como sede, bueno, en fin, sobreactuación ante una decisión que no ha sido bien medida, porque ha habido un despliegue de excesos y de excusas. La sanidad es lo prioritario, como si los vizcaínos no hubiésemos visto lo que pasó en los recientes encuentros futbolísticos en nuestras calles. ¿Qué pasa, que la sanidad sólo cobra importancia cuando se trata de que jueguen la selección española, que se celebre la Eurocopa en Bilbao?, ¿no lo era en el derby que enfrentó al Athletic con la Real Sociedad o en el partido siguiente que se celebró? Todos vimos cómo estaban las calles de Bilbao, las calles de Bizkaia. La sanidad es importante depende. Porque, ¿cómo se ha resuelto esto de la preocupación y la ocupación?, pues mire, en mi opinión, y se lo digo con toda la sinceridad, señor Rementeria, en este asunto la ideología de nuestros gobernantes no es inocente, y así se ha resuelto el binomio entre preocupación y ocupación. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Fernández Angulo andrea, eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Ahaldun Nagusi jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Eskerrik asko barriro be. Mire, la ideología de los gobernantes y las instituciones vascas es una, estamos en situación de pandemia, y hay que resolver esta situación cuanto antes y lo mejor posible. Usted lo que quiere es esconder bajo esas pretensiones ideológicas, es que vamos a poner unas medidas para toda la sociedad y, ¡ah! otras para la UEFA. Pues no, aquí todas las medidas son para toda la sociedad y para todas las situaciones, incluido los de la UEA, incluido.

Señora Fernández, yo creo que eso es agua pasada, y agua pasada ya no mueve molino. Lo que sí le puedo decir es que quien no ha querido que le celebre la Eurocopa en sede Bilbao ha sido la UEFA. Y mire, y me da que también la Federación Española de Fútbol, me da que también. Pero no voy a repetir más eso, yo quiero mirar siempre hacia adelante, dejar una Bizkaia mejor para las siguientes generaciones.

Nosotros seguimos trabajando para sacar proyectos adelante, y uno de los proyectos para mí importante, de poner de referencia internacional a Bilbao de nuevo, y Bizkaia por supuesto como Territorio, lo vamos a demostrar, y con otro evento de carácter deportivo como este puede ser, y le digo que es el Tour de Francia 2023, en el que va a estar Bilbao, Bizkaia, Euskadi, en todo el escenario internacional como sede, eso es trabajar, eso es compromiso, eso es seguir trabajando por el Territorio, por compromiso, por compromiso. Y no mire usted cosas que no son. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Ahaldun Nagusi jauna. Gai-zerrendako 9. puntua.

EL Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001517](#))

Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Asunto: Las medidas de apoyo a los municipios afectados por el turismo interior.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2021/0001517](#))

Expediente: ([11/B/25/0002292](#))

9.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001517SE](#))

Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Gaia: Barne turismoa jasaten duten herriei laguntzeko neurriak

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001517SE](#))

Espediente: ([11/B/25/0002292](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Bai, eskerrik asko mahaiburu andrea, egun on berriro danori.

Indarrean dagozan mugikortasun murrizketak dirala-ta asko handitu da barne-turismoa azken hilabeteotan. Barne-turismo horren hedapena bereziki nabaria izan da Bizkaiko kostaldeko hainbat herritan; kostaldeko herri txikietan bereziki arazo larriak sortu dira Aste Santuan izandako bisitari kopurua kontrolatu, eta segurtasun eta babes neurri minimoak bermatu ahal izateko. Bizkaia promozionatzeko turismo proposameneko web atari instituzional asko dagoz, irudi erreferentzial modura tratatzen direla herri honek, bain,a gero, bisitariak jasoteko unean ez dogu mediorik jasoten. Galdera zuri zuzenduta dago, Ainara Basurko, baina berdin zuzenduta egon zitekeen edo batuta Imanol Pradales, Unai Rementeria, Gómez Viar jauna, edo Iruarrizaga jaunari: zein neurri hartuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak barne-turismoaren gorakadaren aurrean beharrezkoa daukien udalei laguntza eta baliabideak eskaintzeko? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Arriola Alzola andrea. Erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Basurko Urkiri andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea, eguerdi on guztioi.

Turismo-jardueran soilik aritzen diren negozio txikientzat, autonomo eta enpresa txiki askorentzat, gaur egun bizi dugun egoera oso latza da. Hori ikusirik, Ekonomia Sustatzeko Sailak, dakizuen bezala, hainbat neurri hartu izan ditu zuzenak, dirulaguntza zuzenak, mikroprestamoak, bonuak, eta abar. Honetaz gain, sektore turistikoko elkarte profesional eta enpresarial nagusiek, adibidez, Nekatur, Atrae, Aktiba, APITE, eta abarrek, aurrera jarraitu dugu eurok esanda ere, turismoaren arloan dugun jarduera-ardatz nagusietako bat garatzen, hau da, helmuga turistikoa sustatzen.

Sustapen-lan hori, baina, bizi dugun egoerara egokitu dugu, merkatuak eta bitartekoak kontuan hartuz, eta, lehentasuna emanez barne-turismoari, gertuko merkatuei eta kanal digitalei.

Esan bezala, sektore honek berak interesa adierazi digu behin eta berriro instituziook helmuga turistikoa sustatzen jarraitu dezagun. Honen aurrean, Ekonomia Sustatzeko Sailak sustapen lan arduratsu bat egin du, besteak beste, lurraldeko hainbat udalerrri eta eskualdetara bideratuz bisitari-fluxuak: hiriburura, kostaldeko zenbait tokitara, itsasadarraren alde bietako udalerrietara, bai eta barnealdeko herrietara, gure mendietara, parke naturalera, eta abar ere.

Aste Santuan mugikortasuna murrizturik egon da, eta konfinamendu perimetralak ezarri dira, eta, beraz, testuinguru honetan, gure marketin kanpaina Euskadiko nahiz Bizkaiko herritarrei zuzendu egon da. Helburua metropolialdeko biztanleak, ia miloi bat, milioia baino gehiago, Bizkaiko eskualde eta herri guztietan zehar banatzea izan da. Horretarako, baliabide, produktu eta ikono turistikoko batzuk aukeratu ditugu, gaitasuna dutenak erabiltzaileak erakartzeko, eta haien bitartez bisitariak beren inguruko eskualde turistikotara bideratu izan ditugu. Gure Sailak egiten duen sustapen turistikoa, lekuetara heltzeko informazioa, parkingei buruzkoa, ibilbideei dagokiena, edo bestelako ohar eta informazio praktiko ugari buruzkoa gehitzen da. Xedea, bisitari eta turisten mugikortasun jasangarria sustatzea gure lurraldean. Gainera, bai sare sozialetan eta bai Biz@Bizkay web orrian, hainbat aholku ematen dira eta jardun bide onak nabarmentzen dira, helmugan inpaktu txikiak duten bisitak egin daitezten eta bisitarien esperientzia ahalik eta hobereana izan dadin.

Sustapen turistikoa mugikortasunak eragiten du lurraldean, eta hori da, hain zuzen ere, behar-beharrezkoa Bizkaian jarduera turistikoa egon dadin. 15.000 enpresa eta 50.000 lanpostu barneratzen dituen jarduera turistikoa egon dadin. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Basurko Urkiri andrea. Erantzuteko txandan, Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Bai, eskerrik asko presidenta andrea, eskerrik asko, Ainara Basurko, emondako erantzunagaitik, baina galdera erantzutea nahiko neuke, zentzun honetan udalei zein laguntza eskaini jaken. Ni, batzarkidea izateaz gain, udal txiki bateko alkatea naz, eta alkate moduan dinotsut abandonatuta sentitu garela udalerririk. Abandonatuta, baina hau ez da nobedadea. Amona Felisa gureak esaten eban lez, astoa joaten zanean astokargagaz eta eskukada bat gehitu, hau jarri, eta “aiba! astoa jauzi egin da”, “zergaitik jauzi da?”, lehendik be kargatua joan dalako astoa. “Eta zergaitik joan da kargauta?”, ba, herri txikietan ez dogulako finantziarino nahikorik; Udalkutxaren aportazino hori ez da ekitatiboa. Bardintsua izango da, baina ez ekitatiboa. Ez daukagu ezta municipalik be udal askotan, aparkaleku nahikorik be ez daukagu, garraio publiko egokiturik be ez, eta ez nik dinodalako, konkretuki gagozan zonalde honetan, Eusko Jaurlaritzak enkargatutako txosten batek dino

Urdaibai alerta horian dagoala jasoten dituan turisten kopuruagaitik, eta ez dagoala mugikortasun sosteniblerik. Barria da txostena.

Beraz, astoa lehendik joan da kargauta, eta zegaz joan da kargauta? Ba, kostaldean bizi garen herrietako biztanleok pairatzen dogulako turistifikazio horregaitik bizimoduaren garestitzea, pairatzen dogu lurzoruaren garestitzea, etxebizitzaren alokairuen garestitzea, jentifikazioa, folklorizazioa, kultura eta geure identitatearena. Herriko dendak be bai ikusten doguz zelan bihurtzen diran produktu folklorikoak saltzeko dendak, eta pandemiak zer egin dau? Ba, hau guztia areagotu, eta normala da, jentea, danok nahi dogu mugitu, eta hori sana da, baina ez izatea kolaboraziorik Aldundiaren aldetik.

Eta pasa dan urtean gertatu zan gauza bat ekarriko dot orain gogora, hondartzakaz, hondartzetara be barne-turismoa etorri zan gehienbat pasa dan udan, eta esan jakuna izan zan: “ahal badozue zabaldu, eta bestela ez”. Ba, itzel, begiratu, ni, esate baterako, 860 biztanleko alkatea naz, eta esfortzu handia egin behar izan genduan garbitasunari jagokonez personal propioz, 7 egunetan garbitzeko. Beste alkate batzuk, Elantxobekoak esaterako, Patxi Egurrolak, bera ibili zan egunero kaleak desinfektatzen. Orain, Aste Santuan ibili dan moduan, peto bat jantzita trafikoa kontrolatzen; hau logikoa iruditzen jatzue? Logikoa iruditzen jatzue? Bidezkoa iruditzen jatzue? Laguntza eta kolaborazioa behar dogu. Badakit, Ainara Basurko, ez dala zure Departamentua bakarrik, Departamentu gehiago dagoz hemen honegaz erlacionatuta.

Uda dator, eguraldi ona dator, ez daukagu ezta dei bat be Bizkaiko Foru Aldundiko inorena, Rementeria jauna, zurea ezta be. Beraz, benetan udal txikiok behar dogu laguntza, aisialdia bizkaitar guztiok baldintza duinetan jaso daigun, eta baita aisialdi hori pairatzen dogun herrietako biztanleek eta udal agintariok be. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Arriola Alzola andrea. Eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Basurko Urkiri andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Eskerrik asko berriro, mahaiburu andrea.

Arriola andrea, gure Saitetik, Ekonomia Sustatzeko Saitetik, dakizuen bezala, daukagu dirulaguntza programa bat, zuzenduta dagoana eskualdeetako turismo kudeatzailea izan daigun, erderaz, entes de gestión turística, kasu batzutan dira, RDA, landa garapeneko elkartek, beste bat garapen agentziak, baina, tokian-tokian badagoz berezitasunak. Eta 120.000 euro arteko dirulaguntzak dira urtean, eta zertarako dira? Ba, egitura turistiko horreek, alde batetik, indartzeko, personak egon daitezkan laguntzeko sustapen lan horretan, baita be baliabide turistikoak balioan jarteko, ekitaldiak-eta berrantolatzeke, bezeroari, bisitariari be atentzinoa hobetzeko, difusinoa egiteko ofertarena ekimen desbardinena, baita be eskursionistak-eta gidatzeko, formakuntzarako sektorearen profesionalizaziorako, eta digitalizazioan pausoak emoteko; hori da daukagun dirulaguntza programea, laguntzeko sektore honetan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Basurko Urkiri andrea. Eta gai-zerrendako 10. puntua.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

10.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001518](#))

Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Asunto: Las ayudas para sistemas de saneamiento y depuración de aguas.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2021/0001518](#))

Expediente: ([11/B/25/0002293](#))

10.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001518SE](#))

Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Gaia: Ur saneamendu eta arazketa sistemetarako laguntzak

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001518SE](#))

Espediente: ([11/B/25/0002293](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Eskerrik asko mahaiburu andrea, egun on berriro, danori.

Barriro herri txikien kontuakaz nator, ze garrantzitsua da, eta nik uste dot askotan ez jakola erreparatzen, ezta? Bizkaia zabala da, Bilbo handitik haratago udalerrri asko dagoz, beharizan askogaz. Next Generation fondoek, Europako programak, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan saneamentu eta arazketa sustatzeko 100 miloi euroko zuzkidura jarri dabe, udalek hondakin uren tratametuari buruzko zuzentarauan ezarritako betebeharrak bete ahal izateko. Galdera da: Bizkaian, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan zeintzuk dira beteteko dagozan saneamentu eta arazketa beharrak, eta horreen kuantifikazio ekonomikoa? Hau da, galdera da ze udalerrri eta zenbat diru bakoitzean zer egiteko, ur edo saneamentu azpiegiturak doitzeko 5.000 biztanletik beherakoetan? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Arriola Alzola andrea. Erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Antxustegi Ziarda andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Lehenik eta behin, eta jakingo duzunez, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan saneamendua eta arazketa sustatzeko 100 milioi euroko zuzkidura hori Espainiako Estatu osorako planteatu da.

Trantsizio Ekologikoko Ministerioa arduratzen da funts horiek banatzeko irizpideak identifikatzeaz, eta, hain zuzen ere, funts hori Europako Batzordeak abiarazitako zehapen-prozedurak dituzten 2.000 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerriei emango zaiela ezarri du.

Euskadin, URA arduratzen da funts horiei dagokien gutzia Ministerioarekin batera kudeatzeaz, eta erakundeak jakinarazi du Bizkaiko Lurralde Historikoan ez dagoela baldintza horiek betetzen dituen 5.000 biztanletik beherako udalerririk. Hori dela eta, Bizkaian ez dago laguntza horiek eskuratu ditzakeen udalerririk.

Bestalde, esan beharra daukat Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren gaur egungo esparruan, datozen hamar urteetan, 75 milioi euro inguru bideratuko direla egiteke dauden saneamendu- eta arazketa-premiei aurre egiteko. Funtsean, HUA planta txikietarako, ponpaketetarako eta isolatutako nukleoan tratamenduetarako erabiliko da; izan ere, nahiko ugariak dira hizpide dugun biztanle-tarte hori duten udalerrietan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, zuri, Antxustegi Ziarda andrea. Eta erantzuteko txandan, Arriola Alzola andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andeak: Kaixo, egun on, eskerrik asko barriro.

Zerrenda bat espero neban, eta ez dagoala Bizkaian? Ba, batzuk botako dodaz: Otxandio, Errigoiti, Ajangiz, Nabarniz, Ea, Mundaka, zenbat nahi dozuez? Eta ezagutzen doguzan datuak dira. Nik dakizkit Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez ez, baina bai Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren bidez, berak egin dauelako prebisino bat zer behar dan, eta, esate baterako, Karrantzarako 17 miloi euro. Karrantza be sartzen da zerrenda horretan, esaten dau behar dirala. Busturialdeko herrietarako 110 miloi euro dino Bilbao Bizkaiak.

Baina nik ez dot nahi Bilbao Bizkaiaren daturik, nik Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak nahi dodaz, ze modeloan sartzen gara barriro. Zergaitik modeloan? Ba, jarriko deusat adibide bat, araztegi batena, depuradora batena, guk, gure herrian, Ean, Bedarona auzoan, egin genduan araztegi ekologiko bat, kostatu dana 190.000 euro, 250 personara dimentsionatuta. Nabarnizek antzeko behar bat beteteko, Bizkaiko Foru Aldundiak ez, baina Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak proposatu deutso 1.500.000ko obra bat. Auslestiri, 3.000.000 eurokoa. Hau da, gauzak zelan diseinatzen diran zerikusi handia dauka kosteagaz be, eta ez bakarrik hasierako kosteagaz, inbersino kosteagaz, baita be horren mantenu kosteakaz eta horren kudeaketa kosteakaz. Bedaronan egin dogun araztegi hori, por cierto, Euskal Autonomia Erkidegoko handiena da; Nafarroan badagoz horrelako gehiago, Nafarroari gehiago begiratu beharko geunskio zentzu honetan, ba, bere argindar kostua da zero, zero, horrela diseinatu dalako, ez dau behar bonbeorik, ez dau behar beste era bateko instalazinorik, eta kudeaketa da oso erraza, bakarrik jakin behar da belarra mozten. Eta ateraten diran... Beraz, edozein langilek egin dezake, momentu baten edozein herritarrek. Eta ateraten dan ura, oso kalidade onekoa da arazi ostean.

Beraz, nik, Antxustegi andrea, benetan espero nebana zan zerrenda bat, baina Bizkaiko Foru Aldundiarena, ba, ze herri, eta bakotxak ze behar, eta espero dot Bizkaiko Foru Aldundiak izatea teknikariak honetan lanean, eta ez dana egotea delegatuta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergora, ze hori da nire susmoa, anorexizazino bat dagoala Departamentuaren barruan, ur eta saneamendu teknikariei jagokenez, eta hau bada garapen jasangarriko helburuetan, 17 helburu horreekaz, lehen Iruarizagak aitatu dituana asko dirala, eta, ba, hau seigarrena da, eta Bizkaian gaur egun ez dago bermatuta, eta ez da okerrena, ez dakigu noiz egongo dan bermatuta, ze Bizkaiko Foru Aldundiak, eta gaur ikusi da, ez dauka ezta zerrendarik be zeintzuk diran behar horreek. Hau, benetan, larria iruditzen jat, eta espero dot epe laburrean konpontzea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Arriola Alzola andrea, eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Antxustegi Ziarda andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Eskerrik asko.

Berriz errepikatzen dut, Ministerioak dio Bizkaiko Lurralde Historikoan ez dagoela zuzkiduraren onuradun izan ahal den 5.000 biztanletik beherako udalerririk.

Adierazi, lehen aipatu ditudan 2.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietako premiak dagoeneko aurreikusi eta landu direla Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren esparruan.

Busturialdea ez dago multzo horren barruan, izan ere, jarduketa unitate bakarra dela jotzen da, eta, hortaz, 5.000 biztanle baino gehiago ditu. Hauexek dira Partzuergoak egindako azterlanaren arabera premiak dituzten beste udalerrri batzuk: Karrantza 58,8 milioi euro, Orozko 7,6 milioi euro, Arrankudiaga 20,1 milioi euro, Lanestosa 0,3 milioi euro, Artzentales 0,8 milioi euro.

Dena den, Partzuergoak aztertu ez dituen beste udalerrri batzuk daude, eta ezin dugu zenbakizko daturik eman, baina funtsean betetzeke dituzte erabat saneamendu eta arazketa jarduketak. Eta hauek izango lirateke udalerrri horiek: Arakaldo, Garai, Errigoiti, Arrieta, Meñaka eta Otxandio. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, eta gai-zerrendako 11. puntua.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

11.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001519](#))

Autor: López Odriozola, Urko (EHB)

Asunto: El parque empresarial de Burtzeña.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0001519](#))

Expediente: ([11/B/25/0002294](#))

11.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001519SE](#))

Egilea: López Odriozola, Urko (EHB)

Gaia: Burtzeñako parke enpresariala

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001519SE](#))

Espediente: ([11/B/25/0002294](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: López Odriozola jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea, batzarkideok egun on.

2001ean Burtzeña Industria Parkea sozietate anonimoa sortu zen Burtzeñan, Barakaldon, jarduera ekonomikoaren ekimen inbertsioa suspertu eta sustatzeko asmoarekin. Ordutik, industria parkean ez da enpresa ezarpenik izan, eta bai, ordea, 5,3 milioi euroko galerak metatuta. Enpresaren kapital sozialaren %41a Azpiegiturak sozietate anonimo berezko bitartekoarena da, Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuna duena. Hori dela eta, ondoko ahozko erantzun eskea egin diogu Imanol Pradales Azpiegiturak eta Lurralde Garapenerako diputatuari, kontrol Plenoan erantzun dezan:

Zeintzuk dira gaur egun parke industrialak garatzeko planak, epeak eta Aldundiaren inplikazioa, parkeak berez sorrera zituen helburuak betetzeko? Eskerrik asko, galdera hau erantzuteko hartuko duzun denboragatik.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, López Odriozola jauna. Eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Pradales Gil jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Eskerrik asko, eguerdi on mahaiburu andrea, batzarkideok. Burtzeña Enpresa Parkea efectivamente se constituyó en el 2001, el objeto de la sociedad se ha comentado, las entidades socias son Sprilur con un 49%, Azpiegiturak con un 41%, el Ayuntamiento de Barakaldo con un 10%, y en esta primera intervención, aunque sólo contamos con 3 minutos escasos, intentaré explicar la complejidad de ordenación y gestión urbanística del ámbito que es el denominado 05 Lutzana-Barakaldo.

Hay 5 temas que hay que entender, primero que el ámbito existe multipropiedad pública y privada. De hecho, Burtzeña Enpresa Parkea sólo tiene el 35,2% del total, más un 9,5% que está en manos del patrimonio del Gobierno Vasco, el resto es privado.

En segundo lugar, la existencia de actividades económicas en funcionamiento, que están o se ven afectadas de manera importante por un planeamiento de rango superior, como es el Plan Especial de Ordenación Urbana, que existe y debe asumir todas las consecuencias urbanísticas, técnicas y económicas.

En tercer lugar, que estos suelos, todos, reúnen la condición de inventariados. Esto significa que han albergado o pueden albergar sustancias potencialmente contaminantes, hablamos de suelos contaminados.

En cuarto lugar, la concurrencia en ese ámbito del PERI, el Plan Especial de Reforma Interior, de diversas administraciones y organismos con competencias diversas, que tienen que ver con la ordenación urbanística, pero condicionan también esta ordenación urbanística, y hay que compatibilizar todos los intereses. Y me refiero fundamentalmente a la interdependencia de actuaciones urbanísticas previstas, pero no ejecutadas, como los puentes de Zorrotza y Lutzana, la cubrición de la línea del ferrocarril, el tranvía urbano, la modificación de dominio público marítimo, la rotonda de acceso al parque, el vial interfábricas, el puente de Erandio, el apartadero y playas y vías de FEVE, evacuaciones en el río Cadagua. Es decir, hay que entender toda esta complejidad.

Desde la constitución de Burtzeña Enpresa Parkea se han desarrollado varias cuestiones urbanísticas. La primera, se redactó un Plan Especial de Reforma Interior, un PERI, un proyecto de urbanización, un proyecto de reparcelación, fueron todos ellos recurridos por privados, a resultas de los cuales hace ya algún tiempo se consiguió, tras los pronunciamientos judiciales oportunos, que se aprobara un Plan General de Ordenación Urbana en Barakaldo, que recogía fundamentalmente una mejora de lo que se entendían que eran los desequilibrios entre cargas y aprovechamientos, porque hacían inviable el desarrollo de la actuación, eso ya se corrigió, se ha tramitado y aprobado definitivamente por Barakaldo la modificación del PGOU referido a este PERI, incrementando de manera importante los aprovechamientos, y esto le dota de viabilidad económica a la actuación, se ha elaborado un Plan Especial de Ordenación Urbana, y la documentación precisa para la declaración ambiental estratégica, se ha avanzado, se ha iniciado la tramitación pública, se ha aprobado inicialmente, y en estos momentos estamos para aprobarla definitivamente este Plan Especial de Ordenación Urbana, que requiere aún de informe de calidad de suelos del Gobierno Vasco, informe

medioambiental de la Dirección de Calidad medioambiental del Gobierno Vasco. Eskerrik asko. Luego continuaré, que esto es complejo.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Pradales Gil jauna. Erantzuteko txandan, López Odriozola jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea, eskerrik asko Pradales jauna, zure erantzunagatik.

Egia da denbora askorik ez duela ematen azaldu behar diren eta galdetu behar diren gauza guztietarako. Lehenengo galdera da azkenean toki hori egokia zen eduki dituen arazo guztiekin? Ez ote zegoen beste tokirik inguruan egokiagoa? Kontuan hartuta esan dituzunak lurzoru horren ezaugarriak eta abar. Baina, horretatik haratago, ze ja azkenean hori da, gaur egun kontuan hartu behar dugu Ezkerraldean daukagun panorama ekonomikoa. Panorama ekonomiko honek espezializazio produktiboko galera bat ekarri du, eta enplegu galera izugarria. Berez, ikusten baldin badugu 20 urte hauek Burtzeñari dagokionez, praktikan urte hutsak izan dira, urte galduak izan dira, kontuan hartzen baldin badugu 5,3 milioi euroko galerak egon direla. Orduan, gehien estrainatzen didana momentu honetan da ez egotea plan alternatiborik edo beste lursail alternatiborik, kontuan izanda lursail horrek dauzkan arazoak edozein industria ekimen aurrera eramateko.

Gero, bestetik, kontuan izan behar dugu aktibitate horren garapena hutsa izan dela azken finean. Kudeatzaileak bakarrik egon dira hor, eta ez da mugimendurik egon. Egia da, baita ere, agian beste aukera bat egon zitekeela enpresa konkretu jakin batzuk jartzeko, segun eta zein sektore den, baina, bueno, hori ja beste kontu bat izango litzateke.

Dena den, gure galdera da: parke horri, hemendik aurrera ze izaera emango zaion; gauza bat da gauzak desblokeatzea, bale, oso ondo dago, baina kontuan hartu behar dugu gaur egun aipatu dugula sarritan foro desberdinetan eskualdeen espezializazio produktibo bat egon behar duela. Hor daukagu mahai gainean baita ere oraintxe Eusko Jaurlaritzan Zientzia eta Teknologia plan berria; horretara ere lerrotatu beharko ditugu geure ahalegin asko. Orduan, azkenean zer egingo da horrekin?

Oraintxe gaude zero unean parke horrekin, buelta bat emateko, eta erabakitzeke ea ze espezializazio produktibo nahi dugun, ez bakarrik parke horretarako, baizik eta baita Ezkerralde osorako ere. Gogoan hartu behar dugu, gainera, azkenean La Navalek bere atzetik ekarri duen zurrumbilo guztia, ze beldur ekarri duen, azkenean industrializazioa bai industrializazioa ez, zein motatako jarduerak etorriko dira, dena logistikoa izango da, dena ez da logistikoa izango. Azkenean, Burtzeñak, agian, balio dezake horretarako giltzarri, edo, gutxienez, hasierako puntu baterako. Ze plan dago?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, López Odriozola jauna. Eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Pradales Gil jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Toki egokia dudarrik gabe. Guk berresten dugu bere egunean esandako helburuak zeintzuk ziren, Ezkerraldean industrialdeak kokatzea, baina hemen egon dira hirigintza aldetik eta gero kutsadura aldetik egon diren arazo guztiak. Horiek konponbidean daude, por eso reafirmamos el compromiso con el proyecto, y en todo caso yo creo que hay que tener en cuenta que los plazos de desarrollo definitivos de este proyecto del Burtzeña Empresa Parkea tiene que ver con dos cosas: una es la capacidad de

aumentar el porcentaje de suelo público y llegar al 60%, y dos, avanzar en estas últimas gestiones urbanísticas que tienen que ver con la descontaminación, fundamentalmente los suelos.

Creo que hoy sí podemos decir en esta tribuna que Burtzeña Empresa Parkea es uno de los proyectos contemplados en el Plan Berpiztu del Gobierno Vasco, que como saben es el plan extraordinario de inversión de 180 millones para dinamizar una veintena de proyectos tractores en lo que se han denominado Zonas de Actuación Preferente. Ezkerraldea está ahí, Burtzeña Empresa Parkea está ahí, hay 60 millones previstos dentro de esos 180, para remediar y recuperar suelos contaminados, y Burtzeña y Ezkerraldea van a ser uno de estos objetivos. Por lo tanto, actividad económica y empleo para esta zona. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko, Pradales Gil jauna. Eta 12. puntua.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

12.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001525](#))

Autor: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Asunto: Falta de coherencia de las acciones políticas a nivel global de la Diputación Foral de Bizkaia.

Documento

([R.E.11/E/2021/0001525](#))

Expediente: ([11/B/25/0002298](#))

Principal:

12.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoa ([11/E/2021/0001525SE](#))

Egilea: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren ekintza politiko orokorraren koherentziarik eza

Dokumentu nagusia: ([11/E/2021/0001525SE](#))

Espediente: ([11/B/25/0002298](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Kasu honetan, galdera Escalante Mesón jaunak egingo dau; beraz, Escalante Mesón jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Eguerdi on, eskerrik asko, eguerdi on guztioi.

Brevemente, a finales de marzo sabemos que se presentó el primer Plan de Diversidad de esta Diputación, entre cuyos objetivos estaba el impulso de la acción pública en diversidad e inclusión. Por otro lado, impulsar también proyectos que promuevan el reconocimiento de la diversidad en Bizkaia, y por otro lado sensibilizar en torno a la interculturalidad e inclusividad. Decir de antemano que valoramos positivamente el Plan, pero tenemos dudas. Tenemos dudas de si se plantean que estos avances sean transversales a toda la Diputación, y por ello planteamos la siguiente pregunta: ¿En qué medida considera importante la diputada foral la coherencia de políticas de la Diputación en materia de diversidad e inclusión, a fin de erradicar las múltiples discriminaciones que sufren una parte importante de la ciudadanía de Bizkaia, y conseguir una sociedad igualitaria? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Escalante Mesón jauna. Erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Laespada andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Presidente andrea.

Lo primero, señor Escalante, le quería decir a la señora Cabornero, y ella decía por lo menos en su iniciativa que al menos les parecía un avance, o les parecía a ustedes un avance indiscutible que presentáramos el Plan de Diversidad, y lo dice escrito en su iniciativa, por lo tanto, sí que quería darles las gracias porque en primer lugar pongan el Plan de Diversidad y de Inclusión al menos en lo que significa su avance, que es un avance indiscutible, dicen ustedes, y que reciben con agrado y valoran positivamente. Primero, darles las gracias, porque yo creo que es importante que también en la política pública de la Diputación pongamos y hablemos de diversidad.

Yo creo que es importante decir que Bizkaia, evidentemente, es cada vez más diversa, más plural, más mestiza, más colores, más gentes, más diversidades de todo tipo. Hace muchos, muchos años ya es diversa, no es ahora, ahora quizás lo vemos de manera más evidente, o más obvia, pero lo ha sido desde hace muchos años. Y la riqueza está en nuestras diferencias, e incorporar las diferencias es justo el papel que nos corresponde y nos toca también a las administraciones públicas. Supongo que todas y todos entendemos que estamos en los momentos políticos en los que nos toca ser valientes para incorporar la diversidad, para que la diversidad no se vea con dificultades, para que las diversidades no sean el temor de una ciudadanía que a veces parece que viene espoleada por algunas fuerzas políticas para pensar que la diversidad es mala.

Por tanto, era un ejercicio político poner encima de la mesa y hablar de la diversidad y un ejercicio para explicar que tenemos que incorporar todas las diversidades, sean estas cuales sean, por eso era Bizkaia Anitza y Bizkaia en plural. Es verdad que con humildad hemos empezado a hacer, empezamos a hacer justo en nuestro propio Departamento, con el círculo de influencia de nosotros empezando a escalarlo dentro del propio Departamento, poner la mirada en las asociaciones que trabajan con nosotros, darles más valor, más potencia, procurar trabajar con ese entramado asociativo vizcaíno, que creo que precisan que les acompañemos, trabajar también en nuestras propias políticas, y desde ahí escalarlo al conjunto de la Diputación cuando corresponda y cuando podamos seguir caminando, cuando pilotemos, evaluemos y vemos cómo hacemos para escalarlo al conjunto de la Diputación.

Esa es la idea, eso es lo que nos corresponde, y es exactamente lo que les presenté a ustedes en Juntas, la experiencia de políticas en igualdad también nos lo recomienda así. Primero pilotar, evaluar, extraer lecciones y escalarlo hacia otras dimensiones. El itinerario tiene plazos, tiene medidas, no se puede reducir simplemente, empezamos y ya está, sino que vayamos una vez más, poco a poco, conformando, formando, concienciando, sensibilizando, y a partir de ahí iremos trabajando.

Comparto con usted evidentemente, que no hay otra forma de trabajar de manera coherente, que trabajar de manera conjunta el conjunto de políticas públicas de Diputación sobre esta materia, pero en eso nos van a acompañar, sin ninguna duda, el resto de departamentos cuando vayamos escalando el trabajo que estamos realizando. Nada más, mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Laespada andrea. Erantzuteko txandan, Escalante Mesón jauna, zeurea da berbea.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Eskerrik asko berriro. Lehenik eta behin, recordar que hoy es el día de la salud laboral, y que en lo que llevamos de año 20 personas fallecidas ganándose el pan.

Insistir, lo reconozco, no lo he dicho, no me ha dado tiempo, estaba ya ajustando, reconocemos la variedad del Plan, por eso lo que venimos aquí, la intencionalidad de esta pregunta es promover precisamente que se avance. La idea es buena, una vez más, de verdad, reconocemos y lo que transmitía la compañera era eso, que el Plan nos parece bueno, pero queda como constreñido de inicio, y da la sensación como que, por lo que nos dice, como que sale como algo experimental pero como solo cerrado al principio en este departamento, y el resto de departamentos pueden asumirlo, pero no tienen un compromiso, cuando creemos que por la coherencia política y por, precisamente, por ser un tema sensible y un tema de especial relevancia como el propio Plan lo reconoce, pues debería ser ya de entrada transversal, esto ha pasado con otros planes, como los de igualdad, por ejemplo, que deberían asumirlo, no asumirlo, sino que hubiese un compromiso, que se plasmará, que también eso nos diera pie a dar luego la tabarra con si se aplica o no se aplica a otros departamentos, pero creemos que se debería aplicar.

Y un ejemplo de ello, y que sirva como ejemplo solo, campaña de bondad, en la intermodal de San Mamés, Termibus intermodal, en la campaña del Bizkaia denda la imagen que se veía era completamente lo contrario, la imagen publicitaria usada era todo lo contrario a lo que este Plan de Igualdad defiende. Era una imagen de todo lo contrario, como digo, todo personas blancas, perfectas, de buena edad, era todo lo contrario a lo que este Plan decía, y es un ejemplo, sirva como ejemplo solo, de cómo esta Diputación en este caso está dando la imagen de todo lo contrario a lo que dice estar haciendo.

Por lo tanto, lo que pretendemos es que, habida cuenta de que la intencionalidad de este Plan es buena, se transversalice a otros departamentos, ya que creemos que los objetivos son buenos, pero que deben desarrollarse en otros departamentos que tienen mucho que hacer en este sentido. Por nuestra parte, es todo. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Escalante Mesón jauna. Eta erantzuteko txandan, Aldundiaren ordezkaria, Laespada andrea, zeurea da berbea.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Menos mal que estamos al final del Pleno, porque me lo ha dejado usted estupendo. Eso de edad buena no sé cuál es la edad buena, yo tengo 56, no sé si eso es bueno, es malo, es regular, en fin, no sé qué significa tener buena edad. Supongo que quería usted decir edad media, o no sé muy bien a qué se refería, pero bueno, y todos blancos, pues hombre, en fin. Las diversidades son muy distintas, y si estamos pensando solamente en colores nos vamos a equivocar, nos vamos a equivocar, señor Escalante. Las diversidades no van de colores, van, además de colores, van de religiones, de diversidades sexuales, de género, lo que usted quiera. Hablamos de muchas otras cosas, y eso no se ve en las imágenes de las fotografías, se ve cuando lo incorporamos realmente en la política pública y que cuando desde la administración pública decidimos por hacer por ejemplo abrir la posibilidad de que los funcionarios y funcionarias públicas sean personas también en diversidad, de eso va la política pública y eso es lo que tenemos que hacer.

En cualquier caso, transversalidad de todas las políticas, claro que sí. Si es que incluso la Norma Foral de Igualdad habla de interseccionalidad, y ya lo hemos metido ahí. Así que no se preocupe, seguiremos hablando seguro de esto, y seguro que encontraremos a pesar de todo, dificultades y fallos, claro que sí, pero iremos construyéndolos, no se preocupe. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko zuri, Laespada andrea. Eta gai-zerrenda agortuta, Batzar Nagusi hau bukatu egiten da. Eskerrik asko, eta egun on bat izan danok.

Batzarra 12:59an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:59 horas.